

**“BOSTAK BAT” LANTALDEA**

25 URTE

**EUSKARAREN ALDE LANEAN****EUSKAL LEXIKOLOGIA AZTERTZEN**

Ohikoa izaten da bizitzan zehar inoizka geldialdiren bat edo beste egin, egindako bidera begiratu eta gogoetak egitea. Urte-kopuru batzuk mugari ere izan ohi dira, ibilbide bateko zenbait jarduera bat-batean gogora ekartzen laguntzen dizkigutelako. Horrela gertatzen da, bereziki, egintza edo gertakari baten ondorengo 25, 50, 75 eta 100. urtea heldzean, horietako bat aparteko arretaz aintzat hartzen dugunean. Urte kopuru biribil horiei, bestalde, *zilarrezko*, *urrezko*, *diamantezko* urtemuga edota *mendeurrena* deitzen diogunean.

Hori horrela, gure *‘Bostak Bat’ lantaldeak* argitara emandako lehen liburua 25. urtemuga dela eta, 1983. urtetik hona burutu izan dugun lanaren berri ematea nahi izan dut, beti atak zabal-zabal eskaini izan dizkigun *Karmel* aldizkari honetan. Urte guzti horietan zehar, hainbat gorabehera izan diren arren, hemen gure ibilbidearen zertzeladarik nagusienak bakarrik bilduko ditut.

## 1. IBILBIDEA

*'Bostak Bat'* lantaldeak bere lehen liburua –*Sinonimoen biztegia*– orain dela 25 urte argitaratu zuen arren, taldearen eraketa aurreko urtean (1982) gertatu zelarik. Urte horretaraino Euskaltzaindiaren euskara-tituluetarako batzordean bildutako zenbaiten artean ikastaroak eta antolatzen ari izan ginen, premia oso larria baitzegoen batez ere ikastoletako eta gaudeskoletako irakasleen prestakuntza-alorrean.

1972ko ekainaren 30ean, Euskaltzaindiak “Euskalduntze-Alfabetatze batzordea” sortzeak, batetik, euskara irakasten ari ziren taldeak bide berberera ekarri zituen, eta, bide batez, euskarako titulazioak emateko talde bat antolatzea bideratu. Ez zegoenez euskarako tituluak emateko unibertsitaterik, Euskaltzaindiak bere gain hartu zuen euskara irakasten ari zirenen prestakuntza frogatzeko probak egitea, eta tituluak luzatzea, horretarako eskarmentu handia zuen zenbait pertsonaren laguntza eskuratu, eta talde berezi bat abian jarritz. Talde hori Alfontso Irigoien jaunaren ardurapean eratu zen Joanjo Zearreta idazkari zuelarik. Geroago *'Bostak Bat'* lantaldea sortu, eta “*ADOREZ*” hiztegi sortari hasiera eman genion gehienok batzorde horretako kide ginen.

Hori horrela, “D” eta “B” tituluak eskuratzeko aukera herri-tarrei eskaintzeak, era berean, horretarako prestatzeko ikastaro bereziak eratzea ere eskatzen zuen. Hainbat tokitatik ikastaroeskariak jaso ondoren, titulazio-batzorde horretan ari ginenok elkartu eta Bizkaia aldean ikastaroak emateko talde bat osotu genuen. Ikastaro horiek aste barruan nahiz larunbatetan (Zorrotzan “D” mailako titulazioa lortzeko ikastoletako andereño-entzat, eta Deustuko unibertsitatean “B” titulazioa lortzeko prestatzekoak gainerakoentzat) ematen hasi ginen. Aste barruan *Ullibarri* eta *Zabala* euskaltegietan; geroago, larunbatetan *Urretxindorra* ikastolan ere eman genituen. Udan, ostera, Iruñeko UEUko udako ikastaroen barruan.

Zeregin horretan urteetan jardun eta gero, ikastaro horiek emateko nahikoa irakasle prestu zegoela bazterretan ikusirik, horretan jardun izandako taldeko kide batzuk urrats berri bat eman beharra ikusi genuen. Egin-eginean ere, halako ikastaro berezietarako falta zen materiala prestatzea. Horretarako *Bostak bat* taldea sortu genuen eta lanean hasi. Lehenengo bi liburuxka (fonetika eta geografia-historiari buruzkoak) argitaratzeko laguntza eskaini genien egileei, era berean beste premia batzuetarako materiala prestatzeko ahaleginetan jarraitu.

Horrela, taldekideen gogoen eta prestakuntzen arabera bi talde osotzea erabaki genuen. Talde batek "D" mailarako sinonimoen hiztegi egoki bat prestatzeari ekin zion, eta besteak "B" mailako titulurako goi mailetako literatura, linguistika, azterketa literarioa eta abar irakasteko gaiak prestatzeari. Lana errazago zelako edota langile gehiago ari ginelako, aurrea hartu genuen sinonimoen hiztegirako lanean ari ginenok, euskara hutsezko sinonimoen lehen hiztegia 1983an argitaratzea lortuz.

Nork ez ditu ezagutzen gure lehen sinonimoen hiztegiaren diseinatzaileei esker hain erakargarri bihurtu ziren begi zabal haiek? Euskaldunok geure euskalkitik beste euskalkietara begiak zabaltzen genituela edo ematen zuten aditzera. Gure taldearen '*Bostak Bat*' izenak ere bost euskalki nagusiak (Bizkaiera, Gipuzkera, Lapurtera, Nafarrera eta Zuberera) gogora ekarri nahi zituen. Aurpegi horrek hain arrakasta handia izan zuenez, geroago berriztatuta eta hainbatetan handituta argitaratu genituen sinonimoen hiztegietan ere aurpegi bera mantentzea erabaki genuen. Gogo handiz ekin genion lanari gure liburu-sortari ezarri genion *ADOREZ* izenak aditzera ematen duenez!

Argitaratzeko dirua guk geuk jarri behar izan genuen inork ez baitzuen sinesten euskara hutsezko hiztegi batek etorkizunik izan zezakeenik! Oso merke eskaini genuelako edota, agian, besterik ez zegoelako, izugarritzko arrakasta izan zuen gure liburuak urte horretako Durangoko azokan, libururik sal-

duena izatera helduz. Urrats berria zela eta elkarrizketa luze bat egiteko aukera eskaini zigun Pello Zabaletak azokan bertan, aurreko urtean abian jarritako *Euskadi* irratian. Horrek asko lagundu zigun eta edizio erdia inguru saldu zen azokan, horrek aurrera egiteko izugarrizko bultzada eman zigularik.

Irratirako eginiko elkarrizketa horretan ea zergatik ez genuen definiziozko euskal hiztegi bat egitera jotzen galdetu zigun Pellok. Guk aztertuko genuela gaia erantzun. Eta hala egin genuen luzapenetan ibili gabe. Horrela, *Euskararako Hiztegia* izango zena prestatzen hasi ginen. Jo eta ke ekin genion lanari 1984ko urtearen hasieran, lehen urrats modura definitu beharreko oinarrizko zerrenda aukeratu, (oraindik gogoan ditut zenbait larunbatetan UZEIk bilduta zuen lexiko-bilduma aztertzeraz Donostiara egindako bilera haiek) eta materiala prestatuz. Guzti hori uda baino lehenago izan zen.



*Bostak Bat' taldeko kideak, ezkerretik eskumara: Gotzon Aurrekoetxea Olabarri, Patxi Uribarren Leturiaga, Juan Luis Goikoetxea Arrieta, Txomin Solabarrieta Etxaburu, Ricardo Badiola Uriarte eta Luis Baraiazarra Txertudi, Euskararako biztegia eta biztegi borri emandako saria eskuetan dituztela (1986)*

Definiziozko hiztegi hori burutzeko, baina, jendea behar genuen eta lan horretarako euskara oso txukuna erabiltzen zuen Luis Baraiazarra karmeldarrari taldean sartzeko eskaria luzatu genion. Nik neuk aipatu nion udako oporretan gure asmoa eta eskolak ematen ari zen ikastolarekin akordioa egin ondoren gure taldearen zerbitzura dedikazio osoz lanean jartzea lortu genuen. Horrela osatu genuen ordutik hona sei ki-dek aurrera eramán izan dugun taldea.

Bi urtetako lan luzea burutu ondoren, 1986an argitaratu genuen arrakasta hain handia izango zuen gure *Euskararako hiztegia*. Hiztegi horri jendeak eginiko harrerari esker iraun izan du, hainbatean, gure taldeak hiztegi-gintzan lanean. Bestalde, horri esker Luis Baraiazarra irakaskuntzako lanetatik askatuta buru-belarri hiztegi-gintzan jarduten jarraitzea lortu genuen. *Euskararako Hiztegia* argitaratu genuenean Euskal Libururik onenaren saria ere jaso genuen, eta horrek hainbatean indarberritu zituen gure lanerako gogoak. Horrela jarraitu izan dugu gaur arte.

## 2. ASMOAK

Aurreko lerroetan, bidez batez izan bada ere, aipatu ditut zeintzuk izan ziren gure taldeak lan hau abian jartzerakoan aurrez aurre izan zituen asmoak, batez ere euskarak behar zituen materialak prestatzearen garrantzia nabarmenduz. Hurrengo lerroetan zehazkiago aipatu nahi ditut asmo horiek, taldearen nondik norakoak ulertzeko nahiz urteetako iraupenezko jardun horretarako izan duen barneko indarraren argibide izango direlakotan:

1. Euskara gaur egungo gizarteko arlo guztietan (administrazio, irakaskuntza, euskalduntze, komunikabide eta abarretan) erabilgarri egiteko urratsak ematea. Euskarak ezinbestekoak zituen, inguruko gainerako hizkuntzek bezala, euskara hutsez eginiko hiztegiak eta antzerako materialak. Ikastolek eta ere, beste alor batzuetan, material horiek gertatzen ziharduten.

2. Euskalkien eta euskara batuaren artean zubi egokia egitea. Une hartan tirabira gogorak ziren euskara batuaren aldeko eta aurkakoaren artean. Hori zela eta zubi-lana egin nahi izan genuen beren beregi euskalkien aberastasunak (adibideak, esaldiak, joskera, nabardurak...) jaso eta gure hiztegien bidez belaunaldi berrien esku jartzen saiatuz.
3. Hiztegieta eskaintzen diren adibideak (batez ere definitziozko hiztegieta), hitzaren eremu semantikoa hobeki mugatzeko erabili izan ditugu. Horrela, sarritan ezinbesteko baliabide izan ohi dira sarrera baten edukia zein erabilera egokiro proposatzeko. Era berean, mendez mendeko gure kultura idatzia belaunaldi berriei aurrez aurre jartzeko bide paregabe ere izaten dira. Bestalde, arreta handiz jokatu izan dugu giza eskubideen aldeko apustua eginez, gure herriari, gure kulturari, ekologiari, gizakien-ganako begiruneari adibideetan aparteko lekua eskainiz.
4. Gure hiztegieta, esan den bezala, euskalkiei diegun maitasunaren eta begirunearen ondorioz leku nabarmena izan dute sinonimoek. Berauek izan ziren gure lehen liburu-abiabide, eta euskalkien ezagutza-eremua zabaltzeko eta besteen euskara ikasiz joateko urrats bezala hartu ditugu, definitzioko hiztegieta eta hainbat jaso eta eskainiz.
5. Gure taldearen beste asmoetariko bat zenbait ikerlari euskaldun trebe gure inguruan bildu, eta beraien ekarpenak jotzea izan da. Era berean, garrantzi handia eman diogu jende gaztea trebatzeari, gurekin lanean aritu diren zenbait pertsonak lexikologia alorrean zenbait lekutan euskararen onerako lanean jardutea lortu dugularik.
6. Azkenik, gure asmoa dirua egitea izan ez denez (dudarik gabe, kide gehienok beste lanbideren batetan izan dugulako bizitza ateratzeko diru iturria iraun du), eta jardun honetan euskararen alde hainbeste ordu dohainik eman izan ditugunez, gure hiztegiek merkatuan euskarako hiztegien prezioa merke izatea ere lortu izan dugu. Horrek,

jakina, oinarrizko hizkuntza tresnak gaztelaniako pareko hiztegiak baino merkeago izatea ekarri du, bide batez euskarari indarra emanez.

### 3. BURUTUTAKO LANA

Gorago aipatu denez, *'Bostak Bat' Lantaldearen* sorrera planteamendu estrategiko baten ondorio izan zen: egin-eginean, euskaldunok euskaraz jarduteko hiztegi mailan ezinbestekoak genituen tresnak sortzeko gogoak eraginda. Hori dela eta, talde honen hiztegi gehienak euskara hutsezkoak izan dira. Horrela, *ADOREZ* hiztegi sorta jarri genuen abiabidean. Esan den bezala, *Euskararako Hiztegia (Adorez 2)* definiziozko lehen hiztegia, Kintana-Aresti jaunek Batasunaren Kutxan eginiko ahalegina osotzera etorri zen.

Hiztegi elebidun biak, ostera, urte luze horietan bildutako ikerlan ugarien emaitza izan dira. Hain zuzen ere, 1986an *Euskararako Hiztegia (Adorez 2)* kaleratzean hiztegi horri erantsi genion beste hizkuntzetako eranskina osotu, eta aparteko hiztegi bezala prestatzearen ondorioa.

Argitalpenak hiru bertsio desberdinetan egin ditugu: liburu formatuan, CD-ROM-ean eta Internet bertsioan.

#### 3.1. *Liburu formatuan:*

- **1983:** *Sinonimoen Hiztegia (I). Adorez 1.* (8.964 sarrera).
- **1986:** *Euskararako Hiztegia. Adorez 2.* (mota honetako lehena).
- **1988:** *Sinonimoen Hiztegia (II). Antonimoduna, Adorez 3.* (19.783 sarrera).
- **1990:** *Euskararako Hiztegia. Oinarrizkoa, Adorez 4.*
- **1991:** *Eskola Hiztegia. Irudiduna (I). Adorez 5* (haurrentzat prestatua)
- **1993:** *Europa Hiztegia. Eskola berrirakoa. Adorez 6*



'Bostak Bat' taldeak ADOREZ sortan argitaratutako hiztegiak



- **1996:** *Diccionario 3000 Hiztegia* (I), **Adorez 7** (elebiduna)
- **1999:** *Sinonimoen Hiztegia* (III), *Antonimoduna*, **Adorez 8**. (36.703 sarrera)
- **2001:** *Diccionario escolar 3000 Eskola Hiztegia*. **Adorez 9** (elebiduna)
- **2002:** *Diccionario 3000 Hiztegia* (II), Adorez 7 (elebiduna; **zeharo berriztatua**)
- **2005:** *Eskola Hiztegia. Irudiduna* (II). Adorez 5 (**zeharo berriztatua**)
- **2006:** *Euskal Aditza*. **Adorez 10** (hiztegi-eran antolatua)

### 3.2. CD-ROM formatuan

- **1995:** *Europa Hiztegia*, **Adorez 6**. (honetako euskarrian eginiko lehena).
- **1996:** *Diccionario 3000 Hiztegia*, **Adorez 7** (elebiduna)
- **1999:** *Sinonimoen Hiztegia. Antonimoduna* (III), **Adorez 8**
- **2001:** *Diccionario escolar 3000 Eskola Hiztegia*, **Adorez 9** (elebiduna)

### 3.3. Internet-en<sup>2</sup>

#### **Eusko Jaurlaritzako eta Euskaltzaindiko Web orrietan:**

- **1996-2006:** *Diccionario 3000 Hiztegia*, [www.euskadi.net/euskara](http://www.euskadi.net/euskara)
- **1999-2006:** *Sinonimoen Hiztegia*, [www.euskadi.net/euskara](http://www.euskadi.net/euskara)

#### **Oharrak:**

1. (II)<sup>1</sup> seinalatzen denean, administrazio arazoen ondorioz aurrekoak zuen zenbakia mantentzen den arren, edukiei dagokienez, (I) eta (II) erantsita dutenak hiztegi desberdinak direla adierazi nahi da.
2. Une honetan, beste zenbait erakundek **Internet bidez** lotura egin dute bi Web orri horiekin gure hiztegia beste hainbat bidetatik jendeari dohainik eskainiz.

#### 4. Burututako beste lan batzuk:

“Bostak Bat” lantaldeak hiztegi guzti horien oinarri izan diren hainbat ikerketa burutu izan ditu urte ugari horietako ibilbidean zehar, zenbait lan sakon eta neketsu bere gain hartuz. Horretan laguntza paregabe eskaini izan dio Bizkaiko Foru Aldundiak, guk urterik urte aurkeztutako proiektuak onartu, eta burutzeko behar genuen laguntza emanez. Ezin izango genituen jarraian aipatzen diren ikerlan ugari eta neketsuak burutu, gure ahaleginek eta ikerketa horietan jarritako gure diru-inbertsioek laguntza hori izan ez balute. Hurrengo hauek dituzue burutu ditugun ikerlanik garrantzitsuenak:

- ***Datu-base bateratua (Euskara eta teknologia berriak) (2003)***: gure hiztegi guztiak leiho bakarra erabiliz kontsulta egiteko informatika-programa berri eragingarria, une honetan edukiz hornitzen ari garena. Hitza ‘leiho’ batean idatziz, datu basearen arabera, lau argitxo piztuko zaizkigu eta gogoko dugun hiztegiaren datu-basea eskainiko zaigu: euskal hiztegia (definizioduna) + euskara-gaztelania / gaztelania-euskara + sinonimoak.
- ***Euskal Hiztegiko definiziozko zerrenda ugaritzea (2004-2005)***: *Europa Hiztegia* abiapuntutzat hartuz urtean zehar burututako lana; une honetan 42.000 sarrera inguru ditugu euskaraz definitu eta txukun jarrita. Lan honetan eta *Oinarrizko Hizkuntza baliabideen azterketa* ikerlanean oinarritu zen gure *Eskola Hiztegiaren* azken bertsio berriztatua.
- ***Oinarrizko Hizkuntza baliabideen azterketa (2006)***: lehendik eginak genituen zenbait ikerlanak (Lino Akesoloren lexiko osoa, Azkue hiztegiko hitz komunak bilketa, gaur egungo Eliz liburu etako lexiko bateratua...) eta bestelako 38 oinarrizko euskal iturri aztertuz burututako ikerlana dugu; horri esker jakin izan ditugu zeintzuk diren euskaraz beharrezko sarrerak nahiz erabilienak.

- ***Euskalkiei buruzko ikerlanen emaitzak gizartera-tzea (2006)***: Bizkaiko 13 herritan egindako grabaketen emaitzak erkatzean datza; lan zabal honek laguntza handia eskaini digu Bizkaiko lexikoaren zenbait aberastasun batuan txertatzeko. Alor hau ez dugu oraindik guztiz amaitu.
- ***Gure datu-basea, Euskaltzaindiko Euskara Batuko lantaldeak proposatutako sarrerekin erkatu eta horien arabera berriztatzea (2007-2008)***: Euskaltzaindiko Euskara Batuko lantaldeak euskara baturako proposatutako sarrera guztiak aztertu ditugu, eta *Orotariko Euskal Hiztegiak* baliatuz irtenbiderik egokienak ematen saiatu gara, horrela gure hiztegietan lekua egiteko. Hitz maileguen kasuan, une honetan EUSKALTERM-ek (Euskal terminologia banku publikoa) nahiz beste zenbait hiztegi modernok ematen dizkiguten datuak kontuan hartuz, gure datu-baseari irtenbiderik egokiena ematen ari gara.
- ***Euskal Aditza – Trinkoa eta laguntzailea – (Batua – Bizkaiera – Zuberera) (2005-2006)***. Gure hiztegietan eta eskaintzen diren aditz-eskemak eta jasotzeaz gainera laguntzailearen aurkibide alfabetikoa –adibide eta guztire eskaintzen da. Era berean, aditz trinkoaren joko osoa ere bai. Une honetan eraberritze-bideetan dugu, liburu formatuan ez ezik internet bidez ere kontsultarako tresna baliagarria izan daitekeela uste baitugu.

Aipatu diren hainbat alorretan gidari edo bide-urratzaile izan garela uste dut. Esaterako **Sinonimoen Hiztegiak** egite-rakoan edota **Definiziozko euskal hiztegiak** abian jartzera-koan. Gure lehen hiztegietatik hartutako hainbat eta hainbat adibide eta definizio aurki ditzakezue geroago etorri diren bes-te zenbait euskal hiztegitan. 25 urte hauetan euskarari ekarpen zabala eskaini diogula uste dut. Euskarari gizarte modernoko egoera desberdinetarako bideak irekitzen saiatu gara eta hain-batean lortu dugulakoan nauzue.

## 5. PARTAIDEAK

Aurreko lerroetan *'Bostak Bat' lantaldeak* 25 urtetan zehar egindako lana ekarri dugu gogora. Hala ere, aitortu beharra dago, lan hori ez dugula ofizialki taldea osotzen dugun sei ki-deok bakarrik egin. Gure lantaldea, zientzia-alor desberdinetako kolaboratzaile multzo handi batekin inguratu da. Gure inguruan hainbat pertsona bildu ditugu, eta egindako lana guztien ahaleginen emaitza izan da. Gehiago edo gutxiago guztiek lagundu digute lan hori egiten, eta hurrengo lerroetan guztien izenak gogoratu nahi ditut. Gure argitalpenetan ere hala egin izan dugu, bidezkoa baita nori berea aitortzea eta eskertzea.

Euskaltzain, ikerlari, irakasle, itzultzaile, idazle eta abarrez gainera, datu-basean datuak sartzen nahiz ikerlanetako zenbait alor aztertzen jardundakoak ere gogoratu nahi ditut, honelako ikerlanetan azpiegituretako lana garrantzi handikoa izaten delako. Bide batez, Luis eta Carlos gure informatikariak, eta Be-goña Medel, David Zabala eta Jose Antonio Tellaetxea irudigile-argazkilariak aipatu ondoren, laguntza handia eman diguten hurrengo izen hauek gogora ekarri nahi nituzke alfabetikoki:

**Akesolo Olibares**, Lino; **Alegria Aierdi**, Edurne; **Antonaga Sustatxa**, Kepa; **Arbaiza Alvarez**, Ainhoa; **Atxikolande Bilbao**, Nestor; **Auzokoa Olagoitia**, Iban; **Baraiazarra Txertudi**, Pilare; **Barrutia**, Eneko; **Beaskoetxea Goti**, Maribel; **Butron Jauregi**, Joseba; **Davant Iratzabal**, Jean-Louis; **De Nicolas Pinto**, Iñaki; **Egiluz Ugarriza**, Jose Ramón; **Izagirre Diaz**, Estibalitz; **Errasti Aranbarri**, Iñigo; **Etxebarria Bilbao**, Jose Ramón; **Fuentes Goikoetxea**, Beñat; **Gabika Mentxaka**, Alberto; **Garai Errekaxo**, Jabier; **Goikoetxea Bilbao**, Atotz; **Gorrotxategi Nieto**, Mikel; **Goti Artabe**, Zuriñe; **Inchaurregui Ortiz de Zarate**, Jose Manuel; **Irigoién Etxebarria**, Alfonso; **Iturbe Barrenetxea**, Jacinto; **Jauregi Baraiazarra**, Eunat; **Korta Arcelus**, Jon; **Larrazabal Belar**, Eider; **Letamendi Urresti**, Patxi; **Linaza Goikoetxea**, Elena; **Lizundia Askondo**, Jose Luis; **Lobera Revilla**, Gotzon; **Mendiguren**

**Bereziatu**, Xabier, **Montorio Uribarren**, Bego; **Naberan Naberan**, Jesús; **Orbe Monasterio**, Martin, **Osa Ibarloza**, Erramun; **Pertika Atxa**, Jon; **Piedra Anakabe**, Gabriel; **San Esteban Martínez**, Iratxe; **Torrealdai Erezuma**, Gotzone; **Trabudua Enzunza**, Mikel; **Uribarren Axpe**, Gurutze; **Usobiaga**, Cristina; **Videgain Zolakia**, Charles; **Zabala Urriolausokoa**, Ainhoa; **Zalakain Garaikoetxea**, Jesus Mari; **Zuloaga San Román**, Eneko.

Eskerrik beroenak guztiei.

## 6. ETORKIZUNA

Behar bada, zuetariko norbaitek itaun dezake zeintzuk diren une honetan ditugun asmoak. Egia esan, *'Bostak Bat' lantaldea* osotzen dugunok geroago eta zaharragoak gara. Hori horrela, azken urte hauetan jende gaztea gure lanera erakartzten saiatu gara. Hala ere, ez dugu oso garbi ikusten gure etorkizuna, hiztegiek ematen duten diru-iturriek ez dutelako nahiko sarrera eskaintzen norbait lan horretan finkotasunez jartzeko. Hori, hain zuzen ere, inguruko egoera hainbatean aldatu delako. Gu lanean hasi ginenean ez zegoen honelako hiztegerik. Orain hainbat ditugu bai merkatuan bai internet bidezko baliabideetan.

Une honetan, uste dut, badutela erantzukizunik herri erakundeek ere, ezin delako honelako lanen zama astuna pertsona edo talde pribatuen gain utzi. Beraz,

**Ezinbestekotzat jotzen ditut hurrengo hiru urrats hauek:**

- 1. Hizkuntza alorrean ikerketak egiteko diru-laguntzak ematen jarraitzea:** nahikoa astuna gertatzen da hizkuntzaren oinarrizko baliabideak diren hiztegiak prezio merkean plazaratzeko, taldeek nahiz pertsona pribatuek -inprimategiko gastuen zama astunari aurre egin behar izateaz gainera- aldian aldiko berrikuntzak egiteko

ikerketa zein prestakuntza lanen kostua ere beren gain hartu beharra izatea. Ikerketarako laguntzarik izan ezan, oso garesti kaleratuko lirateke hiztegiak, prestakuntza lanetan ordu asko egin beharra izaten da eta. Liburuaren salmenta-bidezko sarrerek, gehienez ere, langile eta bulego hornitutako azpiegiturari neurri apal batean aurre egiteko laguntza eman ohi dute. Egileek, ordu ugari lanean dohainik egin ondoren, sarritan egile-eskubideak ere ezin izaten dituzte jaso.

**2. Hiztegiak Internet-en jendearen esku dohainik izatearen truke urtero diru-kopuru finko bat ematea:**

nire ustez laguntza edota konpentsazio hori jaso beharko lukete interneten dohainik eskaintzen diren materialen jabe guztiek -taldeek nahiz partikularrek- trukean aldika-aldika berriztatzeak egiteko konpromisoak eta eskatuz, jakina. Hiztegiek herritarrei -hemengoei nahiz mundu zabalekoei- kontsultak egiteko aukera paregabea dohainik eskaintzen dietenez, uste dut, hainbatean, zerbitzu publikotzat jo behar direla. Horrek ikertzaileei lanean jarraitu ahal izateko bideak eskainiko lizkieke.

**3. Euskara hutsezko hiztegiei (orokorreari nahiz entziklopedikoei) aparteko laguntza ematea:**

laguntza hori, euskal liburu ez-komertzialekin erabili ohi den bidea edo antzerakoren bat erabiliz egin daiteke; hots, argitalpena egiten denean liburutegietan eta euskal zentroetan banatzeko liburu kopuru handi bat erosiz edo. Kontutan hartu behar da horrelako argitalpen bat egitean egiten den inbertsioa tantaka eskuratzen dela urteetan zehar, eskuratzen denean, noski. Horrela jokatu ezik, baztertu egingo da halako hiztegiak egitea edota daudenak berriztatzea, zor-iturri gertatzen direlako. Edota sortzen duten gastuari aurre egiteko prezio handia ezarri beharra ekarriko du. Guzti hori, jakina, euskarako irakaskuntzan eta komunikabideetan dihardutenen eta euskaraz bizi nahi dutenen kaltetan izango da.

Honelako lanetan dihardugunok ditugun eragozpenak handiak direlarik, gogoeta egiten ari gara orain arte egindako lan oparoa bat-batean desager ez dadin. Merkatuan nahiz internet bidez sarean dugun eskaintza ugaria kontuan hartuz bideratu nahi dugu gure hiztegiaren etorkizuna. Horretarako lehen urratsa datu-baseak eta horren ondorioz merkatura eramango diren hiztegiak eraberritzea denez, zeregin horretan dihardugu buru-belarri lanean.

Epe laburrera, beraz, zeharo berriztatutako *3000 HIZTEGIA* kaleratuko dugu, eta bestelako hiztegiaren bat edo beste ere (lehengoren bat berriztatuz edo egokituz) jendearen esku jarriko. Beraz, ikusten duzuenek, oraindik badugu lanari ekiteko kemenik, eta kemen horrek bultzatuz *ADOREZ* gure goiburua egia bihurtzen jarraitzeko asmorik.

*Patxi Uribarren Leturiaga*